

## **Mondragon Unibertsitatea eta Mondragon Korporazioa CO2rik gabeko hiriak sortzeko SmartEnCity proiektuko partaide dira**

2016/03/14

Horizon 2020 I+G+b programaren esparruan, 'Hiri eta Komunitate adimendunak' europar programaren barruan eramango dute aurrera SmartEnCity ekimena. Energia-eraginkortasuna, mugikortasun iraunkorra eta IKTen (informazioaren eta komunikazioaren teknologien) erabilera hobetuko duten ekintzen bidez herritarren bizi-kalitatea hobetzea da egitasmoaren xedea. IKT aplikatuak bizi-kalitatea hobetzeko erabiliko ditu, hain zuzen, Mondragon Unibertsitateak. Mondragon Korporazioak eta Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak diseinatu eta abian jarritako plataforma globalaren bidez, SmartEnCity proiektuan partaide diren hirietan hainbat datu eta balio bilduko dituzte lau urtez. Energia-kontsumoaren edota CO2 isurketen inguruko informazioa jasoko dute, besteak beste.

Tartu (Estonia), Sondeborg (Danimarka) eta Gasteiz dira ekimenean parte hartzen ari diren lehen hiriak, eta "bide-erakusletzat" hartu dituzte.

